UZTAILAREN 30etik ABUZTUAREN 29ra

# 2021eko KULTUR UHERI ONDARROA

*«...eta arrantzale galduen itsasontzietan, brankaz, emakumeen lurretara abiatu zinetela itsasoan musikaren uhera luze bat utziaz.»*

*MAULEKO BIDEAN.* Benito Lertxundi

## OHAR GARRANTZITSUAK:

2021eko KULTUR UHERI ONDARROA

- Sarrerak turismo bulegoan salduko dira uztailaren 24tik aurrera.
- Euria izanez gero ekitaldiak Zaldupeko patioan edo Udal kiroldegian izango dira.

GARRANTZITSUA:

- Egoera sanitarioa dela-eta ezarritako aforoa errespetatu beharra dagoenez, sarrerak agortu ahala ekintza bakoitzeko salmenta itxi egingo da.
- Maskarilla ezinbestekoa izango da ekitaldi guztietan.
- Lehen iladan lehentasuna edukiko dute mugikortasun murriztua dutenek, aniztasun funtzionala dutenek, haurdun dauden emakumeek, pertsona nagusiek eta euren laguntzaileek.

---

UZTAILAK 30 BARIKUA

19:00/ FRONTOIAN

## BIREN

BARRURA BEGIRA DISKAREN AURKEZPENA **euro 2**



*Ispilu bat eskainiko dizuegu gure barrenetan aurkitutako emozioetan zuen barrenak islatzeko.*

---

UZTAILAK 31 ZAPATUA

19:00/ FRONTOIAN

## TIO TERONEN SEMEAK

FESTAMENDUA IKUSKIZUNA **euro 2**



*Zoritxarreko egoera batean elkartzea egokitu zaio gure lagun koadrila xelebreari; hileta batean, hain zuzen ere. Bertan, pasartea ulertu nahian ibiliko dira batera eta bestera, gertatutakoa iraultzeko esperantzan. Umore, dantza eta doinu ezagunez jositako ikuskizun original bezain berritzailea.*

---

ABUZTUAK 1 DOMEKA

19:00/ FRONTOIAN

## ZIRIKA ZIRKUS

HEMENDIKARA **euro 1**



*Hemendikara zirko konpainia nomada bat da eta munduko toki ezberdinetatik etorritako pertsonek osatzen dute. Zirika Zirkusen ikuskizun guztiak bezala, umorea, maitasuna, aniztasuna eta berdintasuna nagusi.*

---

ABUZTUAK 6 BARIKUA

19:00/ FRONTOIAN

## OIHULARI KLOWN

GABE **euro 2**




*"Les clochards", clown eskaleak, izeneko tradizioari jarraitzen dion ikuskizuna. Teilaturik gabeko bi pertsonaiek umorez salatzen dituzte pobrezia eta desberdintasunak.*

---

ABUZTUAK 7 ZAPATUA

19:00/ FRONTOIAN

## KAI NAKAI

KONTZERTUA **euro 2**



*Kai Nakai ahots eta gorputz libre bat da. Konplexurik gabeko reggaetoia, generoaren estereotipoetatik kanpo, emakume ahots indartsua eta burujabea, klixeak apurtuz, errealitate berriak eraikiz erritmo eta pentsamendu askeak, haize berri bat··· Gasteiztik eta euskaraz, kultura urbanoa euskal kulturaren periferiatik edonora, Kai Nakairen mezua gauzak egiteko modua bera da, ahots propioa. Entzun eta sentitu, harritu, gozatu, dantzatu eta utzi eramaten.*

---

ABUZTUAK 8 DOMEKA

19:00/ FRONTOIAN

## IRRIEN LAGUNAK

10 URTE!!! **euro 1**



*Tiritatxo eta Martinber Tiritatxoren kontsultan sartuko dira. Bat-batean, Tiritatxoren mahai gainean gutun bat ikusiko dute. Gutuna beraien lagun batek bidalia da eta zoriontzeko idatzi die, Irrien Lagunak-ek 10 urte bete dituelako! "Hara! 10 urte! Zer egingo dugu? Jai bat? Nola? Denon artean antolatuko dugu!" Tiritatxo eta Martinber gidari direla Irrien Lagunak pasako dira kontsultatik, bakoitzak jaialdirako bere proposamena eginez. Abestiak, umorea eta parte hartzea ez dira faltako!*

---

ABUZTUAK 13 BARIKUA

19:00/ FRONTOIAN

## DENA

KONTZERTUA **euro 2**



*"Ezer Sentitzeko" diska aurkeztuko du DENA Ondarruko musika talde gazteak. Taldearen lehenengo diskan Xabatek, Unaiek eta Beñatek rock-a bere zentzurik zabalenean jorratzen dute, nagusiki post-hardcore ukituz buzti dute beraien lana, nahiz eta hainbat estilo ezberdinen influentzia somatu daitekeen. Autoekoiztutako lana izan da, crowdfunding kanpaina kolektibo baten bidez aurrera atera ahal izan dena. Musika goibela, garrasiak, kostaldeko enkantua eta hori dena...*

---

ABUZTUAK 14 ZAPATUA

18:00/ FRONTOIAN

## BENTAZAHARREKO NESKA-MUTIKO ALAIAK

KANTALDIA **euro 2**



*Hainbat urteetan arrantzale egunean etorri izan dira gure herria, bazkalostea alaitzera ohiko euskal kantuekin kantujiran. Oraingoan, kalejirarik ezin denez egin, frontoian izango ditugu.*

---

ABUZTUAK 15 DOMEKA

18:00/ FRONTOIAN

## ESKU PILOTA PARTIDAK

**euro 2**



EMAKUMEZKOEN PARTIDA

*Alday – Orbegozo*
*Agirre – Ruiz de Larramendi*

GIZONEZKOEN PARTIDA

*Julen Retegi – Azanza*
*Arretxe - Pascual*

UPELPELOTA

---

ABUZTUAK 20 BARIKUA

19:00/ FRONTOIAN

## YOGURINHA BOROVA ETA AURORI BADIOLA ETA IBAI SANCHEZ DJ

BINGOZ BINGO **euro 2**



*Badator Bingoz Bingo!!! Bingu, betiko musiki: lehenaku, atzo goxeku, bixarku eta etziku! Bingera eleantikin!!! Premixuk gañea, Kilometro ZERO!! Nahi dan beste barre!! Bingo barrun pasaten dana, bertan geatzen da!! Baezpaakuk, hobeto kanpun geatzen bazaze!!! "*

---

ABUZTUAK 21 ZAPATUA

19:00/ FRONTOIAN

## GARAZI ETXABURU ETA JOSE PABLO ARRIAGA

OIHALEZKO TEILATUA DANTZA IKUSKIZUNA

## NODE KULTUR ELKARTEA

EMAKUMEAK DANTZA IKUSKIZUNA **euro 2**



*OIHALEZKO TEILATUA: Jose Pablo Arriaga eskultoreak eta Garazi Etxaburu dantzariak elkarlanean sorturiko ikuskizuna.*

*EMAKUMEAK: Bi emakume eszenan, irmo eta ausartak. Bidaia inposatu eta bortxatu bat egitera behartuak, baina elkarrekin.*

---

ABUZTUAK 22 DOMEKA

19:00/ FRONTOIAN

## KIKI, KOKO ETA MOKO PAILAZOAK

NATURA GARA **euro 1**



*__Basoko iratxoak oso izuturik daude__, aztoratuta eta haserre, ikusirik gure planetako gauzarik baliotsuena, __naturaren bizia, suntsitzen eta birrintzen ari dela__. Eta nork edo zerk du horrek errua? Gizakiaren arduragabekeria itzelak. Zuhaitz, iratxo, uraren zaindari, pailazo eta publikoari esker, azkenean, __denok elkarrekin ospatuko dugu__, naturaren biziaren garaipena; hain zuzen, __garbi ulertuko baitugu natura garela.__*

---

ABUZTUAK 27 BARIKUA

19:00/ FRONTOIAN

## BERDINKI ZIRKUA

«mikra» **euro 2**



*Bi zirku artista euskaldunek berdintasunaren inguruan dituzten gogoeta eta kritikak plazaratuz akrobaziaren bitartez ikusleei gai horien inguruan zer pentsatua eman eta irudítegi berri bat garatzeko sortutako konpainia da.*
*Nola identifika gaitezke erakusten dugunaren eta garenaren artean? Aske bizi dugu geure nortasuna?*

---

ABUZTUAK 28 ZAPATUA

19:00/ FRONTOIAN

## HERRI KIROLAK euro 2



- BIZKAIKO 3. MAILAKO AIZKORA TXAPELKETA
  Mikel Agirre ondarrutarraren partaidetzaz.
- BIZKAIKO 1. MAILAKO HARRIJASOTZE TXAPELKETA
  Inhar Urruzuno ondarrutarraren partaidetzaz

---

ABUZTUAK 29 DOMEKA

19:00/ FRONTOIAN

## SHAKTI OLAIZOLA

BALDIN BADA IKUSKIZUNA **euro 1**



*Margolari eta musikari baten erokeriak eta zentzugabekeriak ikusiko ditugu gertutik. Margolari bitxi honentzat margotzeko ekintza sinplea izugarrizko abentura izan daiteke. Oso traketsa da, baina dauzkan izugarrizko trebetasunak erakutsiko dizkigu: oinekin margotu, ezinezko orekak, oso jarrera arraroetan abestu... Ziirkua, kontorsioa, akrobazia, dantza, antzerkia eta pintura bi pertsonai samur hauen bihurrikeriak eta abenturak kontatzeko.*